

Aitzuzar, Arandui, Arantzazugoiti, Berdolatze, Usabel



3.9

Bidosolagoitiko Juan Arza Soloeta eta Aitzuzarreko Margarita Urkiza Etxebarria, ezkondu ziranean (1926 aldera). Juan, lau neba-arrebatan bigarrena (Maria, Juan, Antonia eta Miguel), 1900ean jaio eta 1960-VII-27an hil zan. Margarita Arteako errotazarreko Tomas Urkiza eta Arantzazugoitiko Tomasa Etxebarriaren zazpigarren oinordekoa (Leon, Rosa, Mari, Daniel, Plazido, Simon, Margarita, Esteban, Elias, Marzelino, Modesta eta gaztetan hil zan bat). Margaritaren ama Tomasa alaba bakarra izan zan eta Arantzazugoitin jaio zan (gaur Totorikatarrak bizi diren etxean). Orduan Arantzazugoiti eta Aitzuzar Maria Adan de Yarzarenak ziren eta hau hil zanean bere oinordekoak lur honeek saldu egin ebezan, sendi bakoitzak gaur daukazan lurraldeak hartuaz. Margarita 1989-II-14an hil zan, 83 urteko zala.




3.10

Aranduiko Franzisko Ugalde Bernaola (1901-VII-24an jaioa) eta Jesusa Kortazar, Mendiolakoa. Aranduiko Eskolastiko eta Arantzazuko bertako Leonaren oinordekorik gazteena dogu Franzisko (Narziso, Julian, Maria, Angel, Josefa, Leonardo, Modesta eta Franzisko). 1935 aldera ezkondu eta Areatzara joan zirean biziten (orduian eleiza ondoan, eskoiko partean, egoan etxe zahar batera. Hiru seme-alaba izan ebezan, Alejandro, Begoña eta Juanjo. Franzisko 1952an hil zan, Jesusa 1991ean.



3.11

Anastasia Belaustegi Mugarza eta Aranduiko Pedro Ugalde (1878-XII-4an jaioa). Pedro Zeledonio Ugalde eta Juliana Atutxaren oinordekorik zaharrena (1878.ean jaioa). Pedrok hiru anaia-arreba izan ebazan: Paula (1880), Jose Ramon (1882) eta Maria (1887). Pedro eta Anastasia 1911 aldera ezkondu eta bederatzi seme-alaba izan ebezan: Angeles, Margarita, Dolores, Leonardo, Modesta, Eujenio, Meltxora, Pantxi eta Rikardo. Pedro 1957an hil zan, Anastasia 1951.ean. Argazkia 1948 aldekoa da.



3.12

Aranduiko Jose Ramon Ugalde Atutxa eta Kandida Etxebarria Gorostiaga. Jose Ramon Pedro Zeledonio eta Julianaren hirugarren oinordekoa izan genduan eta 1882-IV-11an jaio zan. 1915ean ezkondu eta bost seme-alaba izan ebezan: Justa, Angel, Mari, Juan eta Sebastian. Jose Ramon 1952-VII-24an hil zan, bere emazte Kandida 1973-V-25ean, 91 urtegan. Argazkia 1938koa da.



3.13

Monika Aranburu Arrizabalaga eta Guillermo Lekue Usaola (1901-VI-25ean jaioa). Guillermo Antolin Lekue eta Marta Usaolaren seme dogu, sei anaia-arrebatan gazteena (Adrian, Klemente, Magdalena, Josefina, Polonia eta Guillermo). 1942 inguruan ezkondu zirean (ordukoa da argazkia) eta hiru seme-alaba izan ebezan: Jose Luis, Maria Jesus eta Miguel Angel. Guillermo 1984-XII-20an hil zan, 83 urte ebazala.




3.14

Kristobal eta Ziriakaren seme Simon Totorika Ordeñana eta Agustin eta Agustinaren alaba Dorotea Gondra Zuazo. Simon 1899.eko agorrilaren 23an jaio zan Igorreko Etxebarri auzunean; Dorotea, 1903.eko zezeilaren 6an. Simon 1978-XI-12an hil zan 78 urte ebazala, Dorotea 1989-X-21ean, 86 urteko zala. Ezkondu (argazkia ordukoa da) 1926.ean izan ziran eta lau seme-alaba euki dabez: Juanita, Mari, Sabino eta Maria Angeles. Olarrera etorri zirean biziten (han jaioak dira Juanita eta Mari), gero Aitzuzarrera pasatu zirean (Sabino eta Maria Angeles han jaio zirean) eta azkenean Arantzazugoitira.



3.15

Emeteria Ereña eta bere senar Eujenio Bilbao Aizpuru, Berdolatzen jaioa 1894-XI-13an. Cayetano eta Isabelen bigarren oinordeko dogu Eujenio (Fakundo, Eujenio, Paulina eta Isabel). Argazkia ezkondu ziranekoa da, 1918 aldekoa. Honeen oinordekoak Arrasaten bizi dira.



3.16

Obako Justo Atutxa Totorika (1898-IV-23an jaioa) eta Olazabalgo Dominga Basterretxea Beobide (1904-XI-17an jaioa). Justo eta Tomasaren seme izan genduan Justo eta 1961ko epailaren 21an hil zan, 64 urte ebazala. Justo eta Dominga 1935 urtean ezkondu zirean Usubelera. Han bizi zirean urteatan, 1955.ean Aiztueko etxea egin eta hara aldatu zirean arte. Justok eta Domingak hiru seme-alaba izan ebezan, Milagros, Justo eta Juanita.



3.17

Usubeleko Miguel Landajo Goioaga (1889-IX-29an jaioa), Sebastian eta Franziskaren oinordekoetan zaharrena, eta Urkuzuko Marina Aginaga, euren seme-alaba Miguel eta Elisagaz. Sebastian Landajo eta Franziskak zazpi seme-alaba izan ebezan: Miguel, Ruperto, Sebastian, Jose, Julian, Maria eta Fausta. Argazkia 1920 aldekoa da.



3.18

Urkuzuko Sotera Regil Gerediaga eta Usubeleko Ruperto Landajo Goioaga. Ruperto (1892-III-27an jaioa) zazpi-nebaarrebatan bigarrena da. Ruperto eta Sotera 1929an ezkondu eta lau seme-alaba izan ebezan, Ameli, Tere, Mari eta Franzisko Jabier. Ruperto 1977-III-23an hil zan, 84 urte ebazala; Sotera 1991-XII-9an, 88 urteko zala.